

Berrigara

Arteaga eta Otaño Lumatxoaren maisua




SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefona eta faxa: 943 76 70 58





MULTIOPTICAS



**EGUZKITARAKO
betaurrekoak
3.500 pta-tik**



**EGUZKITARAKO
betaurreko graduatuak
8.500 pta-tik**



KILLER LOOP



Ray-Ban

ALHATI

RĒVO



Ela ordaintzeko ordutan, abantaila ugari:
- MULTIOPTICAn kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.
- Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, balere errekaratu barik.



GAZTE TXARTELA baidin bertuteak erabiltzeko ezazu MultiOpticas-en.



LORTU EZAZU MULTIOPTICAS-en TRAVEL CLUB PROGRAMARAO PUNTUAK

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16
Tel. 943 76 15 75
20570 BERGARA

Juan Carlos Guerra, 1
Tel. 943 79 29 95
20500 ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
20240 ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2
Tel. 943 20 05 22
20600 EIBAR

MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmaltería, 7
Tel. 943 51 78 11
20100 ERRETERIA

UGARTE

AROSZTEGIA



ALTZARIAK DEKORAZIOA

- Leiho termoakustikokoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan 1, (Barruti). BERGARA.
Telefona eta faxa: 943 76 54 91



Emakume ospetsua

Larraitz Uribesalgo / Ikaslea

G oizeko laurak dira eta lo gabean nago oraindik paper txuri honen aurrean. Zerbait idatzi behar eta inspirazioak ez dit mesede haundiegirik egin nahi. Egoera honetan Virginia Wolfen ipuin esanguratsu bat etorri zait burura: "Bazen behin liburu on bat idatzi nahi zuen emakume bat. Horrek famatu egingo zuen eta bere amets bakarrean bihurtu zen. Liburu idazteko asmotan, denda batera joan eta 300 folio erosi zituen, baita 25 arkatz ere. Logelara sartu eta leihoa irekirik (bestaldean paisaia ona edukiz gero, horrek inspirazioa ekar baitezake), mahaian eseri eta orri zuri bat hartu zuen 300 horien artean."

Pentsatzen eta pentsatzen hasi zen. Pentsatzen eta pentsatzen. Eta pentsatzen eta pentsatzen igaro zitzaizkion orduak emakumeari. Orriak zuri zuri jarraitzen zuen. Liburu haren lehen hitza ez zen emakumearen irudimenean pausatzen.

Etxean soinu gehiegi zegoela otu zitzaion eta ordutik aurrera bere senar eta haurrek hanka puntetan ibili behar izan zuten etxebizitzan barrena. Egunak pasa ziren eta zuri zuri jarraitzen zuen orriak. Emakumeak orri gehiago erosi zituen, baita arkatz gehiago ere eta zorroz kilo bat ere bai. Liburu on hura idazten bere-

hala kamustuko baitzituen 22 arkatz baino gehiagoren puntak.

Orduak aurrera zihoazen; orduak, egunak, hilabeteak..., eta orriak zuri zuri jarraitzen zuen. Emakumeari arkatz bat zorroztea bururatu zitzaion eta zorrotz zorrotz zegoenean hasi zen berriz ere pentsatzen liburu haundi hartan. Pentsatzen eta pentsatzen. Eta pentsatzen eta pentsatzen igaro zuen emakumeak denbora. Bere senarra eta haurrak aspertuta zeuden jada isiltasun derrigortu hartan. Emakumearen irudimenean ez zen oraindik bere eleberrri haren lehen hitza pausatzen.

Bigarren arkatza zorroztu zuen eta berriz ere pentsatzen hasi zen. Pentsatzen eta pentsatzen. Eta hilabeteak igaro zituen pentsatzen eta pentsatzen. Ordurako bizilagunak ere kondenatu zituen

"Ordurako bizilagunak ere kondenatu zituen isiltasun haretara eta emakumeak liburu haundi hura noiz bukatuko desiatzen zeuden"

isiltasun haretara eta emakumeak liburu haundi hura noiz bukatuko desiatzen zeuden. Baina hau bosgarren arkatza zorrozten hasia zen; bosgarrena dagoeneko. Lehenago pentsatzen eta pentsatzen igaro ohi zituen orduak zorrozten eta zorrozten pasatzen zituen orain. Zorrozten eta zorrozten eta horrela zorroztu zituen 22 baino gehiago ziren arkatz horiek eta gehiagoren bila joan behar izan zuen dendara. Emakumearen herritarrek ere isiltasun erabateko hartan murgilduta ikusi zituzten euren buruak eta gitxien espero zuten egunean emakumea egunkarian agertu zen; Guinness liburuan sartua zen inork baino arkatz gehiago zorroztu zituelako.

Baina, azkenean oso ospetsu bihurtu zen emakumea. Oso oso ospetsua. Eta orriak zuri zuri jarraitu zuen. 300 baino gehiago ziren pila hartan zeuden folio zuriak. Liburu haundi haren lehen hitza ez zen emakume haren pentsamenduan pausatzeraz etorri. Bost axola zion ordea!

Zorrozten eta zorrozten igaro zuen bizitza emakume ospetsu hark, idaztea baino errezagoa baitzen. Pentsatzeari utzi eta zorrozteari ekin zion, ospearen punta kamustuak denboraren orri zurietan barrena". B

■ barruan



Ines Etxeberria

Ongizate Zerbitzuko teknikaria

"Uste baino emakume gehiago dago mehatxuak eta tratu txarrak jasaten dituen"

8. orrialdean.



Leire Zeziaga

Igeriketa entrenatzailea

"Donostia aldean igerilari asko daude eta aukera haundiagoak dituzte"

21. orrialdean.



Pilare Mujika

Jubilatua

"Negar zerekin egiten dudana? Arrazoiak badira munduan malko bareko negarrerako..."

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1834. Ekainaren 30ean sekulako uholdeak izan ziren Bergara eta inguruan. Antzuolatik eta inguruko mendietatik behera zetozen ufalalek eraginda, Deba ibaiak gainezka egin zuen. Uraundiak sekulako triskantzak egin zituen: Zubietako erreka ondoko etxe guztiak aurretik eraman zituen eta Bergaran 24 pertsonak galdu zuten bizia; Santa Marinaran pulpitora arte igo zuen urak.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1356. Ekainaren 27an Elorriko herri nortasuna bereganatu zuen.

1987. Ekainaren 27an Realak Errege Kopa irabazi zuen Zaragozako La Romaredan, Atletico de Madriden aurka.

MUNDUAN GERTATUA

1919. Ekainaren 28an Versailles-eko bake ituna sinatu zuten aliatuek eta Alemaniak, I. Mundu Gerrari amaiera emanaz.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzza 26

7-9-15-22-41-49 (osag.27/er.7)

Astelehena 29

14-22-24-26-38-47 (osag.49/er.4)

Martitzena 30

18-24-34-40-42-45 (osag.10/er.2)

Eguaztena 1

1-18-21-43-44-45 (osag.10/er.3)

PRIMITIVA

Zapatua 27

2-16-22-30-34-48 (osag.42/er.1)

Domeka 28 *Gordoa*

9-14-22-35-41-48 (osag.20/er.7)

ONCE

Eguakitzza 26: 31.613 (K. seriea: 087)


Astelehena 29: 68.625

Martitzena 30: 58.074

Eguaztena 1: 44.416

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Eguakitz eta zapatuan zeru estaliak izango ditugu eta eurria egingo du han hemenka. Zapatu iluntzean, halere, zerua garbitzen joango da eta domekan urdinguneak nagusituko dira; eguraldi eguzkitsua egunak aurrera egin ahala.

Ilargiaren aldiak



Ilgora: uztailak 1



Ilbete: uztailak 9



Ilbehera: uztailak 16



Ilberri: ekainak 24

Eguzkia

Domeka, uztailak 5



Sortu: 05:52



Gorde: 20:50

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 25	17	12	0,3
Eguakitzza 26	21	14	-
Zapatua 27	24	16	-
Domeka 28	25	11	-
Astelehena 29	21	14	0,3
Martitzena 30	20	15	9,5
Eguaztena 1	23	15	3,6

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Afrontu

Norde-haizearekin egiten duen euri zakarra.

- *Atzo illuntzian azelako afrontua izan zan.*

- *Afrontuak jotzen dabean aldian, paretan, umedade mantxak agertzen die.*

Baita euriak eta nordeak jotzen duen alde.

- *Bentanaik ez eittia obe afrontu aldian.*



hamaika ikusteko jaio ginen!

Irratia baleentzat

Kanadiar kostako orkak (bale hiltzaileak ere esaten zaie), beraien irrati-emisorea izango dute aurten. John Ford-ek (Vancouver-eko Akuarioko aditua), zuzenean transmitituko ditu zetazeo hauen kantuak, urpeko mikrofonoekin hartutako ultrafrequentzien bidez. Muntaia honi esker, zientifikoek orken komunikazio-sistema zertu ahal izango dute irrati tresna arruntak erabiliz.

Farmaziak

Eguakitzza 3:

ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63*

Zapatua 4:

MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15*

Domeka 5:

MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15*

Astelehena 6:

CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74*

Martitzena 7:

PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87*

Eguaztena 8:

GUALLAR. *S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05*

Eguena 9:

ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63*

Ogia

Domeka 5: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak 008

DYA 943 78 71 57

Gurutze Gorria 943 76 55 76

Larrialdiak 943 76 12 94

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Anbulantzia 943 55 49 62

Udaltzaingoa 943 77 91 06

Ertzaintza 943 76 53 40

Suhiltzaileak 943 78 28 00

Osasun Etxea 943 76 24 40

Arrasateko ospitela 943 79 53 00

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 43

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren 943 45 01 31

PESA 902 10 12 10

Taxiak 943 76 19 60

RENFE 943 28 35 86

UDALA

Udaletxea 943 77 91 00

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultur Etxea 943 77 91 56

Liburutegia 943 77 91 62

Mizpirualde Egoitza 943 76 13 66

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 67

Jubilatuena Etxea 943 76 21 40

Postetxea 943 76 25 85

zorion agurrak



Mireia Lopez
Uztailaren 6an
25 urte. Zorionak!
Nobuxa eta familia.



Paul Mujika
Ekainak 29an
urtebetetzea.
Zorionak!
Lagunak.



Isabel Tardon
Uztailaren 5ean
24 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Usoa Agirre
Uztailaren 8an
17 urte. Zorionak!
Gurasoak eta
anaia losu.




Ander Elizburu
Uztailaren 8an
9 urte. Zorionak!
Aitor eta Miren.



Mikel Agirrezabal
Uztailaren 5ean
34 urte. Urte asko-
tarako Mikeltxo!
Nerea.



Saioa Zumelaga
Uztailaren 9an
10 urte. Zorionak!
Gurasoak.



Ander Fernandez
Uztailaren 2an
urtebete. Zorionak!
Familiakoak.



Gabriel Medina
Uztailaren 2an
urtebetetzea.
Zorionak!
Maribel.



Jon Ander Rodriguez
Uztailaren 15an 6 ur-
te. Zorionak! Fami-
liakoak eta lagunak.



Haizea Arregi
Ekainaren 24an
7 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Bixente Iturricastillo
Uztailaren 2an
67 urte. Zorionak!
Etxekoak eta bilobak.



Cristian Coello
Uztailaren 4an
urtebete. Zorionak!
Familiakoak.



Ane Kortabarria
Uztailaren 4an
4 urte. Zorionak!
Familiakoak
eta Iñaki.



Florinda Rodriguez
Uztailaren 6an
urtebetetzea.
Zorionak! Etxekoak.



Janire Urbieto
Ekainaren 28an
13 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Yolanda Castillejo
Uztailaren 4an
urtebetetzea.
Zorionak!
Petit comité.




Miriam Moreno
Uztailaren 4an
6 urte. Zorionak!
Gurasoak eta anaia
Christian.



Iñaki Kortabarria
Uztailaren 20an
urtebete. Zorionak!
Ane eta
familiakoak.



Itsaso Uzin
Uztailaren 22an
urtebetetzea.
Zorionak!
Ane eta Iñaki.



Amaia Zaitegi
Uztailaren 2an
13 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.




Arantxa Atxa
Uztailaren 4an
urtebetetzea.
Zorionak!
Etxekoak.



Miren Urtaza
Uztailaren 8an
5 urte. Zorionak!
Amama eta izebak.



Julen Urtaza
Ekainaren 25ean
2 urte. Zorionak!
Amama eta izebak.



Fernando Moreno
Ekainaren 28an
24 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Nekane Alegria
Uztailaren 30ean
15 urte. Zorionak!
Familiakoak
eta lagunak.



Iñigo Albistegi
Uztailaren 7an
15 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Xabier Zangitu
Uztailaren 8an
26 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Famin Alberdi
Uztailaren 7an
urtebetetzea.
Zorionak! Etxekoak.



Idoia Suinaga
Ekainaren 26an
24 urte. Zorionak!
Aupa kasaka
zatarrak! Lagunak.



Migeli
Uztailaren 1ean
32 urte. Zorionak!
Lagunak.



Leire Agirrezabal
Ekainaren 30ean
24 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



Amama Juli
Uztailaren 7an
urtebetetzea.
Zorionak!
Familiakoak eta Filo.



Jurgi Zuazo
Uztailaren 7an
4 urte. Zorionak!
Gurasoak.

jaioetakoak

Markel Labaka Garamendi

Ekainak 18.

Ainhoa Murillo Pineda

Ekainak 22.

PESA autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:05, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35. Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40. Domeka eta jaieg.: 10:00, 18:00, 18:35, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 21:05*, 21:35* (**Arrasateraino). Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 21:05*, 21:35* (**Arrasateraino). Domeka eta jaiegunak: 09:15*, 11:15, 14:15, 15:15, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35* (**Arrasateraino).

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30 (Arrasateraino), 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jai egunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 09:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 13:20, 15:05, 17:05, 17:20, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 20:20. Zapatuak: 08:20, 10:20, 12:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 8:20, 19:20, 20:20. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 15:20, 17:20, 19:20, 20:20.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 20:45, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

Bergara-Bilbo. Lanegunak: 07:15, 08:40, 13:45 (Elgetaraino), 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaiegunak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 17:00. Zapatuak: 08:00, 17:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 17:00.

MUSIKA

► **Mal de ojo** gaur, eguakitzan, 23:00etan Pol-Polen.

► **Alaitz eta Mainer** gaur, eguakitzan, 23:00etan Elgetan.

► **Aitzol Mujika, Itxaro Aranzabal eta Maite Loidi, eta Edurne eta Josune** eguenean, hilak 9, Bideberrin, 22:30etan. Jardunek antolatuta. Euria egiten badu, Gartzela Zaharrean.

ERAKUSKETAK

► **Kirol argazkien VIII. lehiaketako** argazki one-nak Kultur Etxean.

► **Juan Jose Altunaren** margoak Elorrioko Arriolan, uztailearen 27ra arte.

► **Ricardo Azkargortaren** margoak Donostiako Olaetxea galerian (Aldapeta, 5) uztailearen 14ra arte, astebarruan 17:00etatik 21:00etara.

IKASTAROAK

► **Antzuolan, saltsa eta aerobic ikastaroa** (10-22 urte artekoentzat) uztailean zehar, astelehen, eguazten eta eguakitzetan. Irakaslea: Gema. Izen-ematea: Giartzu gimnasioan eta Antzuolako udaletxean, lehenbailehen.

JAIK

San Martzialgo erromeria

Noiz: domekan, goizeko 9:15etatik aurrera

Martitzenean, San Martzial egunez, herritar asko izan ziren, letania errezatuz, San Martzialera goizean goiz igo zirenak. Domeka honetan ere milaka bergarar bilduko dira San Martzialgo zelaietan. Aurretik, bihar, hainbat ekitaldi izango dira. Arratsaldeko zazpitan, Udal Txistulari Banda eta Kobok dultzainero taldeak lagunduta, buruhaundi eta erraldoien kalejira egingo da eta jarraian Los Perez de Nochistlan mariatxi taldearekin kalejira izango da. Mexikar talde honek hainbat emaldi eskeini ditu azkenaldian Bergara inguruan, Oñatin, Arrasaten, Tolosan edota Eibarren egon direlarik. Zapatu gauean, ohizko rantxerak joko dituzte Udal Pilotalekuan 22:30etan emango duten kontzertuan. Sarrerak 800 pezeta (aurrez) eta 1.000 pezeta (takilan) salduko dira.

Domekako programari dagokionez, ez da

nobedaderik eta urteroko ekitaldiak mantentzen dira. Goizeko 9:15etan alborada izango da, 10:00etan gurdi igoera eta, 11:00etarako, Meza Nagusia iragarrita dago. Meza ostean, Xamatzen dantza saioa izango eta ohizko aurrekua dantzatuko da. Ordubatean Narbaiza eta Egileor arituko dira bertsotan eta orduerdi beranduago kanta saioa egingo da kantina ondoan. Nobedade modura aurten, ohizko kantina gain, txozna bat jarriko da San Martzialen. Kantinaren ardura Amnistiaren Aldeko Batzordeak izango du eta kanpa ondoan jarriko den txoznarena Ariznoa Gimnasia Erritmiko taldeak. Ardo barrika ere ez da faltako domekan. Arratsaldean, 16:30etan haur jokuak izango dira, Getatik aurrera herri jolasak eta ondoren Aranzabal Orkestarekin erromeria. Jaitsiera bederatzietan hasiko da. **B**



San Martzialgo zelaiak jendez beteko dira domekan.

LEHIAKETAK

► **Mariaren Lagundia** eskolaren sorreraren 200. urtemugako ospakizunak iragartzeko logotipo lehiaketa. Lanak astelehena baino lehen Mariaren

Lagundia Ikastolan jasoko dira. Irabazleak 50.000 pezeta eskuratuko ditu. Argibideak, 943 76 25 40 telefonoan.

► **Logotipo lehiaketa**, Zaldibarko Udalak eta herriko elkarteek ume eta

gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko izenpetu duten "Bolo bolo dabil" hitzarmena dela eta. Lanak Zaldibarko Udalera bidali beharko dira uztailearen 15eko 15:00ak baino lehen. Saria: 50.000 pezeta. Argibideak: 94 682 70 16.

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, atek, manparak...




Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea BERGARA

Tf.: 943 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



BOLINTXO ZURRADERO
OKINDEGIA - GOXOTEGIA

Zurradero 2, behea. Bergara.
Tf. 943 76 01 26

DEIAK

► **Ipintza institutuan**
Batzilergorako matrikulario kanpaina zabalik uztailearen 10etik 16ra bitartean, 9:00etatik 13:30ak arte.

► **Bergarako Presoak Euskal Herrira taldeak San Martzialeko erromeriarako kamisetak** jarriko ditu salgai zapatuan. Goizean zehar, San Martin plazan eta merkadiloan erosi ahal izango dira eta arratsaldean, ostera, San Martin plazan eta Arrano taberna aurrean. Bergarako Herritar guztiei domekan kamisetak jantzita igo daitezkeen dei egiten zaie.

► **Herri Batasunaren 20. urteurrena.** Hitzaldi-solasaldia: "Dinamika berriaren azalpena: Akordio Nazional bateruntz", eguakitzean, hilak 10, 20:00etan Artatsen.

► **Santa Marinako tanborradarako entsaiuak** hasiko dira astelehenean, hilak 6, 19:30etan San Martin Eskolan.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, hilak 8, 18:30etan.

► **Elkarrizketa-hitzaldia**
Juan Antonio Lizarralderekin:
"Antzuolako laguntza Brasilen", martitzenean, hilak 7, 20:30etan Antzuolako Udaletxean.

► **Alpino Gorlak eta Polek** hilaren 12rako Arraras-Azpirozera egun osoko mendi irteera antolatu dute. Irteera goizeko 7etan. 943 76 48 51.

JAIK

► **Laixan eguna** bihar, zapatua, Oñatin. 11etatik aurrera haur jolasak, poteo herrikoia eta, 14:00etan, herri bazkaria. Arratsaldean kantak, txisteak, dantzariak eta abar. Gauean Almen taldearekin erromeria.

► **Azoka Nagusia Elgetan.** Domekan, 9:00etan, ganadu, makineria eta burdindegi azokaren zabaltzea. Baserriko produktuen erakusketa eta salmenta ere izango da eta eskulangintza tekniken azalpena ere bai. Goizean Elgetako Trikiti Eskolakoak arituko dira. Arratsaldean, 18:00etan Elgetako dantzarien omenaldia, ordu berean pilota partiduak, 19:00etan Ene Bada taldearekin erromeria eta 2:00etan sardinaren lurperatzea.

► **San Kristobal.** Eguenean, hilak 10, 22:00etan ohizko pinu jartzea, etxafleroak eta kanpai hotsak. Ondoren, auzo gazteentzat txokolatada. Eguakitzean, hilak 10, 12etan Meza Nagusia eta ondoren kotxeen bedeinkapena. Gauez, erromeria Zabaleta eta Imanolekin.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades U.S. Marshals
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

ARRASATE. Alai zinema

A la luz del fuego
Eguakitza: 22:00.
Kundun
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga Ocho cabezas
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto Su majestad Mrs. Brown
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana Fiesta
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ELORRIO. Arriola U.S. Marshals
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00
Astelehena: 20:00.

AZKOITIA. Baztartxo Grandes esperanzas
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.
El hombre de la mascara de hierro
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

U.S. MARSHALS

Zuzendaria: Stuart Baird.
Aktoreak: Tommy Lee Jones, Wesley Snipes eta Robert Downey Jr.
El fugitivo filmean izugarritzko arrakasta eta Oscarra eman zion papera landu du berriz Tommy Lee Jones aktoreak. Trafiko istripu bat ikertzean, Chicagoko poliziak zaurituta-ko gidariaren hatz-markak lortuko ditu, poliziak bilatzen duen hiltzaile bat dela frogatuz. Hospitalean detentatu eta New Yorkera bidaltzean, abioi berean, Samuel Gerard poliziak beste bi preso zaintzen ditu. Istripu baten ondorioz, bietako batek ihes egingo dio...



KUNDUN

Zuzendaria: Martin Scorsese.
Aktoreak: Tenzin Thuthob Tsarong, Gyume Tethong.
Mafiaren inguruko gaiak alde batera utziz, 14. Dalai Lamen inguruko istorioa landu du oraingoan Scorsesek. Txinako inbasioaren ondoren, Tibetetik ihes egin eta, Budharen oinordekoa izanik, santutasunareko gertatu izango den umearen gorabeherak azaltzen dira.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Aprobetxatu oporrak
GIDA BAIMENA
ateratzeko

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Izena ematean
%10EKO BEHERAPENA
Gazte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63

Herriko hainbat emakumeren partetik egon den eskaera ikusirik, Udaleko Ongizate eta Kirol zerbitzuek, emakumeei zuzenduta, autodefentsa teknikei buruzko ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa astelehenean bertan hasiko da. Ines Etxeberria Ongizate Zerbitzuko teknikariak ikastaroaren nondik norakoa azaldu dizkigu.

G. Nola sortu da ikastaroaren ideia?

E. Gure departamentuan gai honi buruzko eskaera konkretu batzuk jaso izan ditugu azkenaldian eta Josean Inárrarekin berba egin genuen zer egin zitekeen aztertzeke. Aurretik berak ere zerbait planteatzeko asmoa zeukan eta azkenean, Ongizate eta Kirol zerbitzuen artean ikastaroa martxan jartzea erabaki genuen hainbat emakumeren kezka horri soluzioa topatzeko.

G. Zein da helburua?


E. Gaur egun uste baino jende gehiago dago mehatxuak edota tratatu txarrak (fisikoak zein ahozkoak) jasaten dituenen. Horrelako egoerak etxean zein kalean eman dira betidanik eta, ondorioz, badago beldurra bizi duen jende bat. Beldurrak batzutan ez dauka justifikaziorik, irrazionala da, baina gaintitu beharra dago. Beldur hori norberak kendu dezake bakarrik eta, beraz, ikastaroaren helburua emakume horiei segurtasun pitin bat ematea litzateke. Biolentzia egoerei aurre egiteko gaitasuna dutela ikusten badute, euren buruarengan segurtasun gehiago izango dute eta beldurra gaintitzea posible izango da.

G. Zein adineko emakumeak izan dira kezka hori azaldu dutenak?

INES ETXEBERRIA

Ongizate Zerbitzuko teknikaria

“Autodefentsa ikastaroarekin emakumeei segurtasun pitin bat eman nahi diegu”



Ines Etxeberria Ongizate Zerbitzuko bere bulegoan.

E. Adin guztietakoak izan dira, gazteak eta helduak. Arazo hau jende askorengan ematen da eta kontutan izan behar da emakume gehienak ez gaudela biolentziari aurre egiteko gertatuta. Fisikoki defenditzea tokatzen zaigunean emakumeok ez dakigu minik egiten, ez gaude borrokan ohituta eta zentzu ho-

“Gaur egun uste baino jende gehiago dago mehatxuak edo tratatu txarrak jasaten dituenen. Badago beldurra bizi duen jende bat”

retan gizonetakoak baino ahulagoak gara, biolentziaren aurrean bestelako hezikuntza bat izan dugulako. Ikastaroan egoera horien aurrean errekurtso batzuk izatea landuko da, biolentziaren aurrean nola jokatu jakin dezagun.

G. Zer ikasteko aukera izango da?

E. Programa zehaztuta dago jadanik. Josean Inárrarekin berak emango du ikastaroa eta emakumeen autodefentsarako alde fisiko eta psikologikoak landuko dira bertan. Karatea baino, bestelako teknikak ikasiko dira. Autodefentsako tekniken barruan, adibidez, oratzeak, tirakadak edota atzetik egindako erasoei zela aurre egin ikasteko aukera izango da eta, era berean, defentsa egiteko hainbat tresnaren (giltzak, poltsak, aterkiak etabar) erabilera erakutsiko da. Ikastaroa emakumeei bakarrik zuzendurik dago eta uztailaren 6tik 30era bitarteko astearte, asteazken eta ostegunetan emango da arratsalde. Prezioa 3.000 pezetakoa da eta izen-ematea Udaleko Kirol Zerbitzuan egin beharko da. Hasiara batean, 10-12 lagunekoko talde bat osatu nahi da.

G. Ikastaro hau, aurretik, beste ikastaroren batekin osatuko da?

G. Oraingoz ez dugu ezer pentsatu. Ikusi egin beharko dugu zer nolako erantzuna jasotzen duen honek. Irailean honen inguruko eskaera mantentzekotan, baliteke Kirol Zerbitzutik zerbait antolatzea.

Dena den, gure zerbitzutik, tratatu txar egoerak jasaten dituzten emakumeei laguntza psikologikoa eskaintzen zaie urtean zehar. Laister gure zerbitzuan eskaintzen ditugun zerbitzuak jasotzen duen gida kaleratu-ko dugu. B

Gazteentzako informazio zerbitzua jarriko da uda ostean Kultur Etxean

15 urtetik 29 urtera arteko gazteei zuzenduko da

Gazteentzako informazio zerbitzua eta haur dinamizazio zerbitzua adjudikatuko baldintza pleguak onartu zituen astelehenean Udalbatzak.

Hiruko gobernua osatzen duten alderdietako zinegotziek aldeko botua eman zuten eta HB abstenitu egin zen. Mikel Eguren HBko zinegotziak esan zuenez, gazte eta haur dinamizazio zerbitzuak ematearekin ados egon arren, baldintza pleguetan egiten diren balorazio ekonomikoekin ez datoz bat.

Bergaran gazteentzako informazio gunea ez dagoela kontutan izanda, zerbitzu hori martxan jartzeko txostena prestatu du Kultura Zerbitzuak. Zerbitzua 15 urtetik 29 urtera arteko gazteei zuzenduta egongo da (Bergaran adin horretako 3.569 gazte daude) eta hasiera batean Kultur Etxeko bigarren solairuan kokatuko da, lehen bideo gela zegoen tokian.

Gazteei zuzendutako era guztietako informazioa eskainiko da: beka, bi-



Gazteei zuzendutako era askotako informazioa eskainiko da.

ARTXIBOA

daiak, ikasketak, lana, intsumisioa, sexua... eta Diputazioeko gazte zerbitzuko sarean konektatuta egongo da. Hasiera batean, astean zortzi orduko zerbitzua eskainiko da, eguen eta eguakitz arratsalde eta zapatu goizetan; zerbitzua urte guztian zehar emango da.

Udalak lehiaketa publikora aterako du Gazte Zerbitzua. Baldintza pleguak astelehenean onartu ziren

eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik, 26 eguneko epean, aurkeztu beharko dira eskariak udaletxean. Zerbitzuak 2.172.000 pezetako aurrekontua du eta Gipuzkoako Diputazioaren laguntza jasoko du Udalak zerbitzua martxan ipintzeko.

Animazio zerbitzua

Bestalde, haurrentzako

animazio zerbitzua adjudikatuko lehiaketa arautuko duen baldintza pleguak ere onartu ziren asteleheneko Osoko Bilkuran. Ludoteka zerbitzua, Osintxuko liburutegiaren zerbitzua, asteburuetako jarduerak eta Udaleku irekien ardura izango du animazio zerbitzua hartzen duenak. Hasiera batean urtebeterako adjudikatuko da zerbitzua, baina beste lau urtez luzatu ahal izango da kontratua.

Azken urteotan Xipizaro ludotekak antolatu eta kudeatu du haurrentzako animazio zerbitzua. Eskainiko diren zerbitzu guztien gehiengo prezioa, BEZ sartu barik, 8.528.363 pezetan zehaztu da. Haur kopurua aldatuko balitz, ordaindu beharreko kopurua ere horren arabera egokituko litzateke. Zerbitzua hartzeko eskariak udaletxean jaso daitezke. B

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

LAKET
gizon & emakume
Barrenkalea 35 BERGARA

CAMACHO
Drogeria Usaindegia
Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA



Musika Eskola eta Bergarako Orkestra sinfonikoaren inguruan, HBk bere ikuspuntua plazaratu zuen eguaztenean.

Orkestra Sinfonikoaren kontuan Udalaren jokaera salatu HBk

Musika Eskola eta Bergarako Orkestra sinfonikoaren inguruan, azkenaldian herrian sortu diren komentarioak direla eta, HBk bere ikuspuntua azaldu zuen prentsaurrekoan eguaztenean. Mikel Eguren Kultura batzordeko kideak adierazi zuenez, gai honen inguruan Udal gobernua ez du ofizialki inongo adierazpenik egin, "nahiz eta eman den prozesuan partaide aktiboa izan" eta horrek egoneza eta kezka sortu du afektatuen artean.

Orkestra sinfonikoko musikariak eta bere zuzendariak, Alfredo Gonzalez Chirlaquek, Musika Eskolatik alde egin zuten urte hasieran. Udalak orkestra sinfonikoaren eta zuzendariaren gastuak bere gain hartzea erabaki zuen. Mikel Eguren HBko zinegotziak prentsaurrekoan adierazi zuenez, gaiari buruzko lehen informazioa komunikabideen bitartez eta martxoaren 30ean, Udal banda eta orkestako zuzendariaren postuaren balorazioa egite-

ko galdetegiak jaso zutenean, izan zuten. Ondoren, Musika Eskolako eta Orkestra sinfonikoko ordezkariekin bildu dira HBkoak eta bakoitzak bere arrazoiak dituela esan zuen Egurennek. Bestalde, proiektu landu eta orokorra egin beharra dagoela esan zuen. "Salatzekoa da Udal gobernua gaia nola eraman duen, izkutuan eta inongo azalpenik eman barik, eta salatzekoa da, era berean, gai honen inguruan zer gertatuko den garbi ez jakitea" esan zuen. B

32 urteko gartzela zigorra Ortega Lararen bahitzaileei

Jose Migel Gazteleu bergararrari eta Jose Luis Erostege antzuolarrari 32na urteko gartzela zigorra ezarri die Entzutegi Nazionalak, Ortega Lara espetxe funtzionarioaren bahiketan parte hartzeagatik. Auziperatuek bahiketa terrorista delitu bat eta hilketak saiakera bat egin zutela esan du epaiak. Eguaztenean bete zen urtebete, Goardia Zibilak Ortega Lara Arrasateko lantegi batean aurkitu zuela, 532 egun bahituta izan ondoren.

Turismo Bulegoa zabalik izango da irailaren 6ra arte

Joan zen eguakizte-rik zabalik dago Turismo Bulegoa. Aurten irailaren 6ra arte izango da martxan honako ordutegiarekin: goizez, 11:30etatik 14:30etara eta arratsaldez, 16:30etatik 19:30etara; domeketan, goizez bakarrik. Aurten ere bisita gidatuak antolatuko dira, goiz eta arratsaldez, eskatzen duenarentzat.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkalea 29 BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOKIA
GOXO-TOKI
D. Irulo, 3 - Tlf. 761235
Mozlategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

ARRANO

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

Udal Artxiboa Interneten bidez aztertzeke aukera Badator-ekin

Badator datu-basea aurkeztu zuten eguaztenean

Bergarako Udal agiritegiaren fondoak Interneten bidez kontsultatzeko Badator datu-basea aurkeztu zen eguaztenean Udal Artxiboan.

Badator datu-basea Irarrik, Bergarako Errekalde jauregian dagoen Eusko Jaurlaritzako Ondare Dokumentalaren Zentroak, jarri du martxan Interneten web orrialde baten bitartez. Web orrialde hau, honako helbide honetan aurkitu daiteke: www.irargi.org da.

Datu-base honek hainbat artxibotako fondoetako informazioa eskaintzen du. Kontsultatzeko orduan, jarritako galderari erantzuten dio: zein zerbitzutan dagoen, zein fondotan eta zenbat erregistratzen. Horretaz gain, hautatutakoaren informazio zehatza ematen du; hurrengo pausua, kontsultatzailea dagokion artxibo zerbitzura joatea izango litzateke, agiria bertan ikusteko.

1989. urtean Irargi Euskadiri buruzko informazioa biltzen hasi zen bere lurraldetik kanpo kokatutako artxibo fondoetan. Helburua, ordura arte inoiz deskribatu

bareko dokumentazioa deskribatzea zen.


Proiektuari Badator izena eman zioten 1991n eta 1997an amaitu zen. 40.000 fitxa inguru bildu ziren. Fitxa hauek, XIII. mendetik XIX. mendera arteko Euskadiko estamentu, gremio, korporazio eta administrazio guztien historia politiko eta sozialaren hainbat alderdiri buruzko informazioa biltzen duten bost milioi folio baino gehiagoren islada dira.

Bergarako Udal Artxibolari Badator egitasmoan sartzeari proposatu zioten eta

hala egin da. Horretarako, Udal artxiboko datu-baseak egokitu behar izan dira.

Badator-eko web orrialdean Bergarako Udal Agiritegiko fondo hauei buruzko erreferentziak jaso daitezke: Artxibo historikoa; Eibar, Mutriku eta Soralezeko eskribauak sortutako agiriak; Bergarako Erret Mintegiko artxiboa eta Zerrajerako artxiboa.

Irargiren Badator web orria aurtengo ekainaren 18an aurkeztu zen eta hasiera-hasieratik Bergarako Udal Agiritegia ere bertan agertzen da. B



Udal agintari eta artxiboko arduradunek aurkeztu zuten Badator datu-basea.

Tavex taldeak 5.000 milioi pezeta inbertituko ditu

Tavex-eko buruek prentsara zabaldu dutenez, 5.000 eta 7.500 milioi pezeta artean inbertituko dituzte Hegoameriketara datozen hiru urteetan.

Bestalde, Marokon beste lantegi bat zabalteko, beste 4.500 milioi pezeta inbertituko ditu Tavex taldeak. Enrique Garran, Tavex taldeko presidentea adierazi duenez, 1997an 1.400 milioi pezetako irabaziaz izan zituzten (96an baino %14 gehiago). Bestalde, Bergarako lantegietan, kalitate handiena duten produktuak egiten jarraituko dutela adierazi du Tavex taldeko buruak.

Frontoiko taberna hartzeko eskaera bakarra

Udal Pilotalekuko taberna errentan hartzeko eskari bakarra aurkeztu da, oraingo errentariena. Datorren asteleheneko Gobernu batzordean erabakiko da frontoiko taberna errentan zeini eman.

AB Asesoresek zuretzat aukeratu ditu...

munduko inbertsio-fondorik onenak... fondo bakar batean

AB Fondos RV FIM

Dei iezaguzu 943 76 54 35 telefonora eta informatuko zaitugu.

Gutxieneko inbertsioa: 100.000 PTA.

AB ASESORES



Ondo inbertitzea denon esku dago


Santalaitz 6, S.Lorentzo industrialdea
Tf. 943 76 54 35
20570 BERGARA

<http://www.abasesores.es>

Berrigara

330 zenbakia.
1998ko uztailaren 3a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97.
Faxa: 943 76 29 77
E-mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate. **Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo. **Banaketa:** Txantxangorri taldea. **Inprimategia:** Gertu Koop.  (Zubillaga, Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritziaren erantzukizunik.

Ekunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

DELITU BAKARRA EUSKARA MAITATZEA

Azkenaldion behin eta berri-zen esan dugun bezala, euskararen aurkako kanpaina antolatua jasaten ari gara. Erasoak gero eta bortitzagoak dira.

Gertaera nagusiak hauek izan dira: 1. Udan haur kanpaldi bateko begiraleek haurrei, euskara ez erabiltzeagatik, us-tez jarritako zigorrak; 2. HBren Mahai Nazionala espetxeratzea dela eta irakasle batzuek bidalitako oharra; 3. AEKko euskaltegi batean erabilitako ariketa aitzaki hartuta, AEK bahitzaile ta hiltzaileen erakunde bihurtzen dute; 4. Hurrengo astean bide beretsuari eusten diote IKAK eta Ulibarri euskaltegiak erabilitako materiala dela eta; 5. Atxiloketa mordo bat egiten da, horien barruan AEKko kide bat dago, horrez baliatuta AEKren egoitza miatzen dute, materiala bahitu eta, berriro ere, AEK kriminalizatzeko saioa egiten da. Lehen bahiketak egiten omen genituen eta orain ETA finantziatzen omen dugu.

Zein izango da euskara itozteko erabiliko duten hurrengo aitzakia? Utzi pakean euskarari. Utzi pakean AEKri.

Akulu AEK Euskaltegia

ESKERRIK ASKO DENOI

Eskerrak eman nahi dizkiegu gurasoei, argazkilariei, bideo-lanak egin zituztenei, Udalari eta X. Udaberriko Kontzertua aurrera eramateko bere laguntza eman zuten guztiei.

Musika Eskola

"CON 6 ME BASTA"

Izenburu honek, zoritxarrez, HBren zinegotziok egunero jasaten dugun pelikula triste eta latza laburbiltzen du.

Legealdiaren 4. urtean sartzerakoan Herri Batasunatik ezin dugu balorazio baikorrik egin. 1995eko ekainaren 17an Victoriano Gallastegi alkate izendatu zutenean eduki zuen jarrerarekin (gure ordezkari bat hitza hartzera zihoanean, hitz egiteko aukera ukatu egin zion eta Pleno aretotik alde egin zuen) garbi ikusi genuen legealdi gogor baten aurrean geundela. Hasiera gogorra baina, ordutik hona, astero -egunero ez esateagatik- jasaten dugu tripartitoaren bazterketa.

Adibidez, azken 5 Plenoak goizez egin dituzte, nahiz eta jakin HBko zinegotziok lan arazoak direla eta ezin dugula

goizetan joan. "Con 6 me basta" zinegotzi bati esan omen zion alkateak, gu goizetan ezin ginela joan azaldu zionean.

Jarrera inpositorio, autoritario eta antidemokratiko baten aurrean gaude. Askotan salatu dugu, "errukiz" eskatu ere. Plenoak arratsaldeetan, lan orduetatik kanpo egitearen beharra, bai geu eta baita herritarrik ere joan ahal izateko.

HBko mahai nazionalaren ordezkariak PNV, EA eta beste alderdi, agente, erakunde eta abarrekin elkarrizketetan eta harremanetan dauden bitartean, herri mailan zulo haundiegia dago oraindik. Halere, nazio mailan egin dugun apostua herrietan ere gauzatzeko prest gaude eta, beraz, harremanetan eta elkarrizketan oinarritutako prozesuan murgiltzeko. Horretarako, Bergarako udal-txetan demokrazia berreskuratzea derrigorrezkoa dugu.

*Aitor Aranzabal
(HBren izenez)*

KONTUOLA

Datorren astean jaietako buruzko 12 orriko berezia izango dela eta, aste honetan ez da Kontularik argitaratuko.

tira biraka: bittor rodriguez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

San Martzial eguna ospatuko da domekan. Domekan ospatzearekin ados ala beste egun bat nahiago?



Jose Mari Laskurain

Niretzat domeka egun ona da. Ez nuke zapatura aldatuko, domekan jende gehiagok daukalako igotzeko aukera. Zapatura beste gauza batzuetara dedikatzen da.



Mari Karmen Inza

Niri berdin samar dit, San Martzial egunean ala astebarrian ospatu, lana kanpoan egiten dut eta. Dena den, jai hori ez zait gehiegi gustatzen.



Karlos Ugarte

Onera beharbada San Martzial eguna tokatzen denean jai hartu eta orduan ospatzea izango litzateke. Ospakizuna eguna denean egin behar dela uste dut.



Arantxa Garcia

Normalean astebukaera ez naiz hemen egoten baina ondo ikusten dut domekan ospatzea. Horrela lanean ari den jendeak igotzeko aukera dauka.



Jose Julio Molano

Domekan ospatzea niri behintzat ez zait gehiegi gustatzen, hobe zapatuan ospatuko bagenu. Gertatzen da denek ez dutela jai zapatuan eta...



Ana Mari Davila

Nik betidanik domekan ospatzea ezagutu dut eta ez dut aldatzeko arrazoirik ikusten. Astelehena gogorra egiten da baina mentalizatuz gero...

Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Maite Aristegik deitu zigun eguaztenean ohartxo bat emateko; urtero, San Martzial ingurua zaborrez gainezka geratzen da eta, beraz, domekan San Martzialera igoko diren koadrilei ingurua zaintzeko eskaera egin nahi die. San Martzial eguna jai ederra dela eta guztion artean ingurua garbi mantentzeko ahalegina egin beharko genukeela dio Maitek. Astelehenean Udalak garbiketa lanak egiten baditu ere, pinudi eta zelaiak garbitzen inguruko baserriarrek pare bat egun eman behar izaten dituztela esan zigun eta hori gerta ez dadin guztiok dagokigun ingurua zaintzea nahikoa izango litzatekeela. Ea ba!!

■ ikuspuntua: **xabier larrañaga**

Baikortasunaren garaia

Gurean, orain bizi dugun hau baikortasunaren garaia omen da. Baikortasun hori azkenaldi honetan gehitu den trafikoan ere isladatzen da. Eta nola ez, guzti hau sustraitzeko garraio-bide berriak, energia-iturri berri ez kutsakorrek eta bertakoak eta, oro har, azpiegitura garesti eta erraldoiak proposatzen? zaizkigu.

Bergara udalerrria guzti honek bete-betean ukitzen du: Eibar-Gasteiz autopista zabalduko dugu, Abiadura Haundiko Trenak Angiozarreko bailara zeharkatuko du eta hori guztia gutxi izanik, zurrumurruek arabera, Irukurutzeta aldetik Karakate bitarteko mendizerran parke eolikoa ezartzera doaz. Guzti hau epe motzean egitekoak



non sartu behar dituzte tunel horiek egitean sortutako solidoak (lurra eta harkaitza). Erreka zuloak eta bailara osoak bete beharko dituzte. Arabako Lautadaz gain, Debako Lautada? Kalkulatu al dira ingurugiroan eta beste alor desberdinetan egingo diren kalteak? Imajina dezagun Alemanian gertaturiko abiadura haundiko tren istripua hemen egingo diren tunel luze baten barrenean

ei dira. Ahalik eta ekologikoenak (noski, presupuesto batzuen barruan) izango omen dira lanak. Ia guztia, lurrazpitik joango omen da (AHT %60 tuneletatik igaroko dela, diote). Hori horrela izanik,

suertatzen dela. Nolakoak izango ote lirateke ondorioak? Lan horiek planteatzen, planifikatzen eta kudeatzen dituztenek sor litezkeen honelako eta antzeko ezbeharrak kontutan hartzen dituzte?

Etorkezunean pentsatu behar dela esaten digute. Zer da etorkizuna? Hamabost, hogeitau, berrogei, ehun urte aurrirak dena bakarrik da etorkizuna? Garapenaren izenean dena da libre? Eta, bukatzeko, parke eolikoan inguruan beste galdera bat. Haize-erota erraldoi horiek mugiarazteko haize bolada egokiak hiriburuetatik (Donostia, adibidez) urrun bakarrik egoten dira? Oso estetiko, garbi eta eraginkorrek direnez, utz dezatela bakean orain 5000 urteko hilerria eta eraman ditzatela errota erraldoiak Igeldo aldera. Han leku aproposa baidaukate Mendizorrotza aldera luzatzen den lepoan. B

■ asteko menua: **beheko taberna jatetxea**

Bildotsa txilindron erara

OSAGAIAK

(4 lagunentzat)

- Bildots erdi zatiak eginda
- Olioa
- Kipula 1
- 3 berakatz buru
- 4 piper txorizero
- Haragi-salda
- Gatza
- Irina
- Ardo zuri txorrotada bat



MARIA ISABEL SAN MIGEL
Beheko Taberna jatetxeko sukaldaria

PRESTAKETA

- Lapiko batean olioa, kipula (ondo txikituta), berakatz txikituta, piper txorizeroak eta bildotsa ipini sutan.
- Gorritzen denean, ardo zuri txorrotada, lehenengo, eta haragi-salda, gero, gehitu eta su bajuan 45 minututan eduki.
- Katilu batean, ur hotza eta irin piskat ondo nahastu (salda loditzeko) eta lapikotik aterako dugun piper txorizeroekin batera, txinotik pasatu eta bildotsari gehitu.
- 10 mintutan sutan eduki, guztia ondo nahastu dadin noizbehinka kazuelari eraginez. Gatza norberaren gustora bota eta prest dago mahaira ateratzeko.

■ adituen esanetan

Hongoak

ARANTZAZU AZPIAZU, *podologoa*

Hongoen arazoa ohizkoa da urte sasoi honetan, hongoak batez ere hezetan egoeratan agertzen direlako. Uretan ibili eta gero edota izerdiaren ondorioz oinak ondo sikatzen ez baditugu, hongoak ager daitezke eta, beraz, udan honelako kasu ugari izaten da. Igerilekuetan edota gimnasiotan kontuz ibili beharra dago eta hongoak prebenitzeko txankletak erabili eta kirola egin ondoren oinak sikatzea komeni da. Era berean, kalean, algodoizko galtzak janzteak on egingo digu hezetasuna saihesteko orduan. Hongoak barruan likidoa duten besikula txiki batzuk lirarteke eta hazkura ematen dute.

Normalean behatz bitartean agertzen dira lehenbizi eta arazoa garaiz ez bada tratatzen oin gutzira hedatzen dira.

Hongoen tratamendurako badira pomada egokiak eta arazoa azaldu bezain laister aplikatzea komeni da, txarrra ez egiteko. Denboraz ez badugu mozten infekzioak etorri daitezke eta orduan hongoek buruhauste ugari eman dezakete. Tratamendu sinplea da baina denboraz jarraitu beharrekoa. Hongoak oin gutzira hedatzen direnean "pie de atleta" deritzan arazoa sortzen da eta hori nahiko larria izaten da. Baina aipatutako gomendioak jarraituta ez dago hongoak zertan agerturik. B

■ bergarako gordailutik

OHITURAK ETA MODUAK

Imanol Sorondo

Trizar Manuel udaletxeko zainzailea da 1764-1765 urteetan eta ordaindutakoen kontua eman du. Horrela dakizkigu ondoren ipiniko diren ohitura eta modu hauek:

San Martin jaiak

- San Martinen jai berezietako "Buru Erraldoiak" Gasteiztik ekarri dituzte, berriro eramateko.
- Plaza berrirako zura behar eta aizkolariak zuhaitzak moztu dituzte mendian.
- Elosuko elur zuloetatik izotza atera da.
- Mendian ibili dira makil bila, bere muturretan argiak ipintzeko kaleko jaietan.
- Barrenkalen eta Bidekurutzetan tabernak daude; tabernariak, bi emakume.

San Roke

- San Rokeren aurrean kandelak ipini dituzte.
- 9 meza eman dira bere aurrean.
- Bederatziurreneko mezak eman dira, berriro ere, osasuna eskatuz.
- Izurritearen aurka San Rokeren Prozesio bat egin da eta kandelak eraman dira.
- Santo Kristoaren aurrean mezak eman dira eguraldi ona eskatuz.

Zubikoa

- Zubikoan gaixo zeuden behartsuak zaindu dituzte egun batzuetan
- Ortiztar Grazia hil da eta espetxeratuentzako janariak eraman dira apirilaren 8tik 26ra (gehiago zehazteke).

Ordainketak

- Ordainketa arruntak: Elosuko eta San Pedroko abade maisuak iragarriki egin dituzte, Udalak eskatutako oharrak.
- San Pedro eta Santamainako sakristauek ezkil errepikak jo dituzte Agata Deunaren bezperan.
- Herriko mendiak aztertzen ibili dira.
- Pilota jokoa garbitu dute.
- Otsoak hil dituzte eta erakutsi ere bai, egia dela adierazteko. B

Txalaparta ikastaroa

Hamalau lagun ari dira **Jardun elkarteak** antolatutako txalaparta ikastaroan. **Andoni Goiti** irakaslearekin batera, ikasleek, eguenero, bi orduko klasea izango dute uztailearen bukaerara arte. Denbora horretan txalapartaren sekretuak ikasten saiatuko dira. Makilak eskuan, erritmo egokiarekin, ziur txalapartaren doinuak menderatuko dituztela laister. Txalapartari harrobi berria...



Gorlara igoera

Bergara K.E.ko futbol talde nagusikoek, Preferente mailara igoera lortu ondoren, sasoi onean bukatu dute denboraldia. Horrela, denboraldia agurtzeko, iaz bezala, **Gorlara txirindulari igoera** egin zuten. Txirindularien mailota eta kulotea jantzi eta, inolako beldurrik gabe, Gorlako aldapei aurre egin zieten. 13 lagun izan ziren irteeran eta guztiak iritsi ziren Gorlako helmugara. **Gorka San Vicentek** eskuratu zuen garaipena eta igotzaile onenaren titulua. Probaren ondoren bazkaria izan zuten Pikupe elkarteak.



Eskulan erakusketa

Bedelkar herriko dendarien elkarteak zapatu goizez antolatutako **eskulan erakusketa** partaidetza bikaina eta ikusle dexente bildu zituen. Herriko hainbat taldetan lanean ari diren bergarrek (emakumeak nagusi) urtean zehar egindako lanak erakutsi zituzten jende aurrean eta benetan lan bikainak izan ziren ikusgai Plazan eta Simon Arrietan. **Jarduneko trikitilariak** eta **Kobok dultzainero taldea** giroa alaitzen izan ziren eta, eguraldia lagun, dena primeran joan zen. Era berean, Bedelkarrek zapatu eguerdian egindako zozketan **151.970** zenbakia izan zen saritua. Boletoren jabeak Donostian bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia eskuratuko du.





Eguneko menu TRADIZIONALA

Eguneko menu ITALIARRA

Pintxoak


Italiar sukaldaritza

Pizzak


URTEBETETZE MERIENDAK

ETXERA ERAMATEKO

pizzak eta lasagna 943 76 72 00ra deituz!



Artekalea 1, BERGARA.



G I Z O N

IKUSBI

IREKI BERRIA

Orain Ikusbi GIZONENDAKO ere bai.



Zurradero 4. 943 76 54 48.
BERGARA

Lumatxoaren maisuak

Ricardo Otaño eta Jose Mari Arteaga marrazkilariak



Plumila lanetan maisuak ditugu Ricardo Otaño eta Jose Mari Arteaga. Gaztetatik ezagutzen dute elkar eta urteak daramatzate herriko txokoak marrazten. Jose Mari eta Ricardo primerako kronista grafikoak ditugu, herriak izan dituen aldaketez jabetzeko prezisio osoz egin dituzten lanak ikustea besteriz ez baitago. Beraien lanari buruz berba egiteko elkartu ditugu.

Ricardo Otaño: Gure aitzindariak, inprenta asmatu baino lehen, inkunableak egiten zituzten kaligrafoak lirateke. Beraiek lan hori egin eta ezagutzera eman izan ez balute guk ez genukeen plumilarekin marraztuko gaur egun. Nik txikitatik marraztu izan dut. Eta plumilarekin marraztera animatu ninduen anekdota bat badaukat: nire koinatu bat, Tomas Barrera, maisua zen Bergaran. 1942. urtearen inguruan, laneko inspektore batek Gipuzkoako maisu guztiei maiatzaren 2ko fusilamenduei eta Amerikako aurkikuntzari buruz testu eta marrazki bana agindu zien eta Tomasi nik egingo nizkiola esan nion. Handik hilabate batzutura Donostiara deitu zuten Tomas eta bera beldurrez joan zen, gerran preso egondakoa zelako. Donostian zera esan zioten: "Ez dakigu zurekin zer egin; edo lehen saria eman edo zigortzea marrazkian Errepublikako ikurriña

jartzeagatik". Azkenean 500 pezetako saria (orduko 500 pezeta!) eman zioten eta bion artean konpartitu genuen.

Jose Mari Arteaga: Nik ere badaukat anekdota bat. Fray Manes ezagutuko zenuen, ezta?

Ricardo: Nola ez ba? Nik ilustratu nuen lehendabiziko liburua Fray Manes-i ilustratu nion: "La vida de Fray Escoba". Laupabost marrazki egin nizkion eta badaukat orijinal bat gordeta. Oso liburu kuriozua da.

Jose Mari: Ba ni batxilergoko lau-garren kurtsoan ari nintzen eta gure marrazkiko maisua Don Felipe Zumalabe zen. Beste maisu bati, Aita Ron-i, "El chino" deitzen genion eta latineko liburuaren bere karikatura bat egin nuen. Aita Leonardok hura ikusi zuen eta handik gutxira Aita Ronek, zigor modura, atximurkada dexente egin zizkidan besoa...


Ricardo: Orduan matematikak

atximurkadekin ikasten genituen...

Jose Mari: Nik nire buruari esan nion; ez noa marrazkiko klaseetara gehiago, zertarako joan! Eta ohorezko matrikula eman zidaten. Fray Manesek Sevillan familiarren bat zeukan eta La Giralderen marrazkiren bat nahi zuen. 10 pezeta eta errosario bat eman zidan marrazkiagatik. 14 urterekin, ordaintzen zidaten lehen lana izan zen hura. Ume umetatik izan dut marrazteko afizioa eta orain 48 urte Ricardoren etxera joaten nintzen, elkarrekin marrazteko. Egunotan eskuartean izan dut Angiozarrereko marrazki bat eta zure etxean marraztutakoa da.

Ricardo: Jose Mari plumilazko argazkilaria da. Teilatu batean 648 teila baldin badira Jose Mari guztiak marraztuko ditu; 40 zuhaitz badaude, berdin. Nik esaten diot behin eta berriz gauzak kentzeko.

Jose Mari: Hasi naiz horretan.



Jose Mari Arteagak landutako Osintxuren ikuspegi bat.

Ricardo: Kontxo, teilak apurtzen hasi zara?

Karpetan ondo gordeta ekarri dituzten lanak elkarrekin komentatzen hasi dira. Berriz elkarrizketaren harira etorri aurretik lan bakoitzaren detailetxoak goitik behera aztertu dituzte eta biek ere besteak marraztutakoa non jasotakoa den berehala ezagutu dute.

Ricardo: Plumilla eskergabea da. Garai batean Udalak gela bat egokitu zuen Zabalotegiko dorretxean eta taldetxo bat Simon Arrietari laguntzera jotzen ginen. 40 bat ikasle izango zituen bere ardurapean eta ez zen batere erreza hura eramatea. Gogoratzen dut plumilak eraman nituela behin eta zazpi

bat gazte plumilak marrazten hasi zirela. Baina handik bost bat egunetara plumilak marrazteari laga eta pintatzen hasi ziren. Hain elementu sinpleak izanik plumilakoak, hasieran helburua lortzea ezinezkoa dirudi eta asko landu behar da. Hori bai, behin helburua lortuz gero, lortzen duzunak erabat asetzen zaitu. Horrek aurrera egiteko indarra ematen dizu.

Jose Mari: Teknika oso sinplea da, marraztea eta pluma erabiltzen jakitea nahikoa da. Plumaren kalitatea ezagutu beharra dago, marrazki mota bakoitzetarako zelakoa behar duzun eta guzti hori. Praktikarekin berehala ikasten da.

Ricardo: Urte askoko edozein elementu plumilako gai izan daiteke. Egurrezko edo harrizko elementuak ego-

kiak izaten dira. Horiek keizpearekin konbinatzea nahiko da plumila lan bat egiteko. Argia bizitza eta kolorea da.

Jose Mari: Elementu zahar horiek dira plumilarako bereziki prestatzen direnak. Zementuarekin gauza gutxi. Harriak eta egurrak, berriz, marrazkia lantzeko aukera ematen dizute eta gure lan gehienak hortik doaz. Teiltatuen kasuan ere, arbela adibidez oso ondo dator plumilarekin marrazteko.


Ricardo: Adobezko eraikuntzak ere bai. Baina onena harlanduzko eraikinetan eta harrizko hormak lirateke. Eta Bergaran, zoriez, horrelako eraikuntza dexente dago. Harria dagoen leku guztietan marrazteko aukera dago. Eta aurrean duzun paisaia horri, papera eta tinta bezalako elementu sinpleekin, bizitza ematea lortzen da. Hori da harrigarriena.

Gaiak hor daude, guztia marraztu daiteke. Bergarak, Elorriok, Oñatik, Arrasatek zerbait gutxiago... herri guztiek dituzte euren txokoak, parrokiak, etxeak edo udaletxeak. Plumilarekin marrazteko leku politak daude eta gai hori aurkitzea besterik ez duzu egin behar. Lehen esan dudan sinpletasunarekin: tintarekin gauza gutxi egin daiteke baina gaia topatuz gero, keizpearekin jokatzuz, urte askoko elementu horiek bezpiztu egiten dira paperean.

Bergara behin eta berriz isladatu dute urtetan egin dituzten mila marrazkietan.

Ricardo: Bergarako txoko guztia marraztu ditut. Basalgoko errepedea amaitzean, Bergaratik baino Eibarretik gertuago dagoen auzo bat margotzea falta zait bakarrik, beste guztia etorkizunerako jasota dago. Plaza marraztea askotan enkargatu didate eta, egia esan, Bergarako plaza zoragarria da.

Afizio honekin disfrutazten jarraitzen dut. Egunean 4-5 ordu ematen ditut marrazten, domeketan ere bai. Hainbat marrazkirekin 30 ordu ematen ditut.
JOSE MARI ARTEAGA



Jose Mari: Nik San Antonio inguru alde guztietatik margotu dut. Goenkale ere asko gustatzen zait eta marrazteko orain dela gutxi deskubritu dudala esan daiteke. Baina Ricardok aipatu bezala Bergaran leku pilo bat daude plumilarekin margotzeko aproposak direnak: Bergarako Kristoa, garaixea ere

beti konstante bat mantentzen da. Nik Altos Hornos utzi nuen inprentekin lan egiteko eta orain, nagusiki, ezkontzetrako agintzen dizkidaten lanak egiten ditut. Nik nire lanak saltzen ditut eta oso ondo doakit. Beti ere plumilak aplikazio polita dauka, oparitzeko motiboa da, plumila lan bat koadro modu-

Jose Mari: Afizio honekin disfrutatzen jarraitzen dut eta primeran pasatzen dut. Egunean 4-5 ordu ematen ditut marrazten, domeketan ere bai. Gaur ere goizeko 6.15etan marrazten nengoen egunean zehar beste zeregin batzuk nituelako. Hainbat marrazkirekin 30 ordu igual pasatzen ditut eta lanean ema-

Urte askoko edozein elementu plumilako gai izan daiteke. Egurrezko edo harrizko elementuak dira egokienak. Bergara aberatsa da alde horretatik.
RICARDO OTAÑO

bai askotan marraztu dut... Alde horretatik behintzat ezin gara kexatu. Bergararik kanpo ere badira leku oso ederak. Pirineoetan, esate baterako, txoko oso interesgarriak daude eta batzuk margotu izan ditut: Anso, Echo..., inguru hori oso polita da.

Arte lanetan adituak izango zarete honez gero...

Ricardo: Oraindik ikasten ari gara eta ikasten jarraituko dugu. Hori bai, beti ere lan bat egiteko gusto batekin aukeratu behar da. Eta arte kontuekin arduratzen gar, noski. Bergaran, adibidez, gauza asko lortu dira baina Santa Marinako dorreko berriztearekin dezepzioa eraman nuen. Lehen askoz hobeto zegoen. 90 urteko andra bati zirujia egiten badiozu, lortzen duzun gauza bakarra txarrera egitea da eta Santa Marinarekin hori gertatu da. Santa Marina zela laga duten ez zait batere gustatzen. Simonek burua altxatuko balu...

Argazkilarien antzera, herriko kronista grafikoak dira plumila maisuok.

Ricardo: Pazkuak heltzen direnean programa ilustratzeko gure lanak oso egokiak dira, baita liburu batzuetarako ere... Gure lana etorkizunean kontsultatzeko ere baliogarria izango da.

Niri, gaur egun, denbora falta zait. Batzuetan enkarguak dauzkat eta horiek bete behar.. Enkarguen kasuan,



ko bat da azken batean... Dena den, esan behar dut nik ez dudala marrazten nahi dudana, eskatzen didatena baizik.

Jose Mari: Ba ni justu kontrakoa. Ez dut konpromezurik hartzen. Nahi dudana margotzen dut bakarrik.

Ricardo: Nik hori egitea nahiko nukeen, ez euki dudarik. Baina oraingoz ez dut "Primitiva" ezagutzen...

ten ditudan orduak kontutan hartuz, ezin dut ordua 500 pezetan kobratu.


Ricardo: Ematen diguten lanerako oso merke kobratzen ditugu. Nik ez dut ordua 1.000 pezetan kobratzen baina pozik nago hala ere. Asko disfrutatzen dut. Kotxean beti eramaten dut arkatza, boligrafoa eta gainontzeko materiala lehenbiziko bozetoa egiteko... B



Santa Marinari buruzko plumila bat, Otañorena.

I P I N T Z A K O

futbol txapelketa



partiduak

NESKAK

Eguaztena 8

19:15: Azkenak-Las Rascamantas
20:30: Biko Bokategia-Potzu Ta Zapaburuak
20:30: Eztaki-Gamma Rai

MUTILAK

Eguakitza 3

19:15: Game Over-Altos Pornos
20:30: A Ze Flaxa La Guipuzcoana-Ezinleike
Astelena 6

19:15: Xurruapak-Matxakategi
20:30: Insert Koin-Arloteak Oilagorra

Martitzena 7

19:15: Angiozar-KIB
20:30: Etengabe-Manitou

Eguena 9

19:15: La Juve-Amilotx
20:30: Fo Fo Fo-Facuta

emaitzak

NESKAK

Baleike-Azkenak 4-0
Gamma Rai-Biko Bokategia 2-1
Potzu Ta Zapaburuak-Eztaki 6-1

MUTILAK

Altos Pornos-Gu Geu 3-2
Xurruapak-Insert Koin 0-3
Matxakategi-A Ze Flaxa La Guipuzcoana 1-5
Arloteak Oilagorra-Ezinleike 0-0
Shaktale-Angiozar 1-4
KIB-Etengabe 4-2
Mongatxurak-La Juve 5-3
Amilotx-Fo Fo Fo 4-3

argi

Txapelketaren lehen fasea bukatzeaz dagoenean, Mongatxurak taldeak final laurdenetarako txartela eskuratu du dagoeneko. Bestalde, Bildurbarek Opel/Lam ere oso ondo dabil eta ez du sailkazeko arazorik izango. A Ze Flaxa La Guipuzcoana, Arloteak Oilagorra eta Amilotx talde historikoak, ostera, ez dabilta horren ondo eta zaila izango dute sailkatzea.

jokoz kanpo



Julian Rodriguez
SHAKTALE

G. Nola zabiltzate?

E. Ez oso ondo. Lau partidu jokatu ditugu eta bakarra irabazi. Taulan, azkenetan gaude.

G. Eta nola bukatzea espero duzue?

E. Erdi aldean.

G. Zein postutan jokatzen duzue?

E. Atzean.

G. Zerk haserretzen zaitu gehien, jokatzerako orduan?

E. Norbaitek bultza egiteak edo ostikoren bat jasoteak.

G. Horrelako asko gertatzen dira partiduetan?

E. Bai, gehiegi gauza onerako. Antolatzaileek adierazi zuten moduan, hona jokatzerako etorri behar dugu eta gutxiago protestatu behar dugu.

G. Ikusi duzue nesken partiduren bat?

E. Behin, parean tokatu zelako.

G. Zure taldearen gauzarik onena?

E. Dagoen giroa. Galdu edo irabazi, beti dago giro ona.

G. Eta txarrena?

E. Askotan oso gutxi gaude jokatzeke garaian.

G. Zein da faboritua zure ustez?

E. Ez dakit. Matxakategi beharbada.

golegileak

NESKAK

Kadeteak

1. Rachel Olabarria Baleike 14 gol
2. Rebeca Fernandez Las Rascamantas 2 gol

Nagusiak

1. Eva Alzas Biko Bokategia 9 gol
2. Naiara Beistegi Gamma Rai 4 gol

MUTILAK

1. Iban Etxeberria Mongatxurak 9 gol
2. Gorka San Vicente Osintxu 6 gol
3. Juan Luis Etxaniz Bildurbarek Opel/Lam 6 gol

sailkapenak

A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Manitou	7	3	11	7
2. KIB	7	3	9	5
3. Angiozar	6	3	15	12
4. Shaktale	3	4	7	12
5. Etengabe	0	3	4	15

B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurak	12	4	17	6
2. Facuta	6	3	8	11
3. La Juve	3	3	8	9
4. Amilotx	3	3	6	8
5. Fo Fo Fo	0	3	5	16

C multzoa

	P	J	GA	GK
1. Bildurbarek Opel/Lam	9	3	13	3
2. Altos Pornos	4	3	10	11
3. La Beccia Kuxumuxu	4	3	7	11
4. Game Over	4	3	4	5
5. Osintxu	3	3	8	4
6. Gu Geu	1	3	4	12

D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Insert Koin	7	3	7	1
2. Matxakategi	6	3	4	6
3. A Ze Flaxa La Guipuzcoana	4	3	7	4
4. Arloteak Oilagorra	4	3	5	4
5. Xurruapak	3	3	4	8
6. Ezinleike	1	3	0	4

Neskek, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Baleike	9	3	18	0
2. Las Rascamantas	3	2	4	12
3. Azkenak	0	3	3	13

Neskek, nagusiak

	P	J	GA	GK
1. Potzu ta Zapaburuak	10	4	12	4
2. Gamma Rai	8	4	13	5
3. Biko Bokategia	4	4	21	9
4. Eztaki	0	4	4	12

Leire Zeziaga, igeriketa entrenatzailea:

"Entrenamenduetan finenak gaztetxo mailakoak dira"

Zazpi urte zituela hasi zen igerian eta une honetan entrenatzaile lanak egiten ari bada ere, hamalau urte eraman ditu handik hona txapelketa ezberdinetan.

G. Zer dela eta igeriketa?

E. Betidanik gustatu izan zait. Duela zazpi urte, entrenamenduetan ari zen lagun baten gurasoek animatu ninduten. Harrez gero, betidanik aritu izan naiz igerian. Zoritxarrez, Euskal Herri mailan adin konkretu batera helduz gero ez dago txapelketetan izateko aukerarik. Bestalde, oso zaila da profesional izatera heltzea eta igeriketa munduan jarraitzeko aukera bat entrenatzaile edo monitorea izatea da.

G. Zenbat denbora entrenatzen?

E. Zortzi urte. Hamabost urterekin, entrenatzaile faltan zeudela eta, gaztetxoekin hasi nintzen eta gero, infantilak eta jubenilak entrenatzeko aukera eskeini zidaten. Orain goizetan entrenatzen dugu. Guztira 35 igerilari gaude.

G. Estilorik zailena?



Leire Bergara Igerilari Elkarteko entrenatzaile bakarra da.

E. Igerilariaren arabera. Normalean braza da zailetariko baina tximeleta ere asko kostatzen da.

G. Irabazitako lehen saria?

E. Arrasateko txapelketa batean lortutako domina. Lortu dudak garrantzitsuenak, Euskadiko igerilari osatuenaren saria izan zen.

G. Zer nolako maila dago Bergarako igerilarien artean?

E. Esan bezala hiru maila daude, gaztetxoak, infantilak eta jubenilak. Une honetan, gaztetxoak dira entrenamenduetan fin dabiltzanak. Gainontzekoei gogorrago egin behar zaie arreta lortzea nahi bada.

G. Inoiz atera duzu norbait uretatik?

E. Ez nahiz sokorrista lanak egitera heldu. Dena dela, sokorrista askok igeriketa lezio batzuk jaso beharko lituzkete. Igeriketan gutxienez, maila handiagoa eskatu beharko litzateke.

G. Nola joan zen Gipuzkoako txapelketa domekan?

E. Ez zen sorpresa handirik egon. Bidasoa izan zen txapeldun. Donostia aldean igerilari asko daude eta aukera handiagoak dituzte. Zoritxarrez ez zen Bergarako inor aritu. Aurkeztu behar zen bakarra gaixotu egin zen.

G. Mutilek waterpolo taldea sortu zuten, neskek zergaitik ez?

E. Hasiara batean, zortzi bat neska elkartu, ideia proposatu eta aurrera ateratzea pentsatu genuen baina partiduetan aritzeko konprometzua lau neskek besterik hartu ez genuenez ezinezkoa izan zen.

G. Non igeri egitea gustatuko litzaizuke?

E. Ez dut inoiz horren inguruan pentsatu.

G. Igerilari bat?

E. Lope Zubero.

Deco-Textil
ZANGITU

Etzerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta
ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69

INFERNUKUA
TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behe
943 76 21 80 / 943 76 06 37

II. Udako Kirol Eskola datorren astean martxan



Martitzenean Oñatiko Unibertsitatean egin zen II. Udako Kirol Eskolaren aurkezpen-ekitaldiko momentu bat.

Deba bailarako udaletako Kirol eta Euskara Zerbitzuek, II. Kirola Euskaraz jardunaldien barruan, kirol arloan lan egiten duten entrenatzaile, monitore, irakasle eta kirolariei zuzendutako zenbait ikastaro eta hitzaldi izango dira uztailaren 7tik 10era.

Ikasle, monitore eta eskola kiroleko monitoreei zuzendutako aerobika, kirol egokituak eta kirol alternati-

boei buruzko ikastaroak, eta kirolarientzako errugbi, pilota eta tenis ikastaroak izango dira. Euskararen inguruan, punta-puntako entrenatzaile eta kirolariekin ikasteko aukera izango da. Besteak beste, honako kirolari hauek emango dituzte ikastaroak: Jon Azkargorta eta Iñaki Ugarteburu (rugbya); Aitor Elkorro eta Jokin Etxaniz (pilota).

Bestalde, hitzaldiak ere izango dira: tapping-a, kirol lesioen prebentzioa (Ju-

len Masach, Realeko prestatzaile fisikoak emango du), elikadura kirolean, abiadura, erresistentzia, indarra eta hizkuntzaren tratamendua kirol munduan izango dira aztertuko diren gaiak.

Ikastaro eta hitzaldiak Oñatin eta Eibarren izango dira: Oñatiko Zubikoa kiroldegian eta Txantxiku ikastolan eta Eibarko Unbe kirol instalazioetan. II. Udako Kirol Eskola martitzenean aurkeztu zen Oñatiko unibertsitatean. B

Igartua seigarren Oñatin

Domekan jokatu zen Euskadiko mountain-bike txapelketa Oñatiko Olabarria auzoan. Bertara, 200 txirrindulari baino gehiago gerturatu ziren eta hauen artean, Igartua-F. Moser taldea oso osorik. Bergarako taldetik, Iñigo Igartuak egin zuen denborarik hobena 6. postuan sailkatuz. Txa pelketako irabazlea, Aitor Garro izan zen.

Muru Elgetako finalean

Iker Muruamendiarazek 23 urtez azpiko pilota finalera heldu da lau t'erdiko Elgetako Txapelketan. Ikerrek, Iban Otaegiren kontra jokatuko beharko du domekan. Ikerrentzat aurreneko finala izango da 23 urtez azpiko mailan. Final laurdenean Chaféeren kontra jokatu behar izan zuen. Partidua 11-17 galtzen hasi arren, bigarren zatian martxa hobetu eta aurre hartu zion. Elgetako txapelketak pisu handia du pilotan. Euskal Herriko pilotari hoberenak bertatik irtendakoak dira.

462 lagun Uda Kanpainan

Uda Kanpaina hasi da eta aurten, igeriketa, pilota, saltsa, jazz dantza, arku tiraketa, tenisa, eta golfa egiteko aukera zabaldu du Kirol Zerbitzuak. Hiru maila bereiztuko dira, 3 eta 4 urtekoena, 5-12 urte bitartekoena eta 14 urtetik gorakoena. Guztira 462 lagunek eman dute izena. Ikastaroak ekainaren 22an hasi ziren baina

hiru txanda izango direnez, oraindik azken txandan izena emateko aukera zabalik dago. Gaztetxoagoak goizaldean arituko dira eta nagusiagoak berriz arratsalde eta iluntzealdean. Bestalde, barruko Udal Igerilekuak irailera arte itxita aurkituko ditugu, egongo diren ikastaro eta erreabilitazio-saiioak direla eta. B





Domekan 5 bergarar aritu ziren arko-tiraketa proban.

Bergarako Arko Tiraketa Eskola txapelketetarako prestatzen

Joan zen igandean, kiroldegiko kanpoan dagoen zelaitxoan, Durango, Zaldibar, Barakaldo, Basauri, Bilbo eta Bergarako elkarteen arteko ligari dagokion arko tiraketa frogak izan ziren. Bi maila ezberdin erakutsi zuten bildutako 29 lagunek; dagoeneko txapelketan par-

te hartzeko prest daudenak eta denbora laburragoa daramatenak. Bergarako bost tiratzaileetatik, Karmelo Alberdi da puntuaketa hobereena lortu duena, 3. postuan dago 830 punturekin.

Bestalde, Arko Tiraketa Eskolak ikastaro bat antolatu du uztaileko Poligono-

ko Aranzadi ikastolan, asteartean izango da 19:00etatik, 21:30etara. ArkoTiraketa Eskola, joan zen urteko urrian sortu zen eta inguruan hain ezaguna ez den kirol hau bultzatu nahi du. Era berean, epe laburrean txapelketa ofizialetan izateko helburua dute. B

Beti Bustiren itsas bidaia

Beti Busti Kirol Elkarteak, Gipuzkoako piraguismo Federazioarekin batera, Saturrarán-Deba arteko V. itsasbidaia antolatu du datorren domekarako, uztailearen 12.

Irteera, Saturraráren goizeko 10:30etan izango da eta eguerdi aldera, Debako hondartzara helduko dira. Parte hartzea nahi izanez gero, Beti Busti elkartearen datuak aurkeztu edo egun berean, 10:00ak inguruan, Saturrarango hondartzara agertzea besterik ez dago. Informazio gehiago, 943 76 16 60 telefonoan.

Saskibaloikoak bigarren

Kutxa txapelketako final erdiak eta finala jokatu ziren Donostiako Egia polikiroldegian joan den aste-bukaeran zehar. Bergarako kadete mailakoak finalera heldu arren, ezin izan zioten Beasaineko taldeari irabazi eta bigarren sailkatu ziren. Infantilak berriz, Askatuak taldearen kontra final erdian galdu ondoren, 3. postua lortu zuten.

Gu Geu nesken futbitoko txapeldun

Domekako futbito finalean, Gu Geu taldeak 6-1 irabazi zion the Road Islandi. Partidu osoan zehar Gu Geu taldea aurretik izan arren, bigarren zatian lortu zuen diferentzia nabarmenena. Bestalde, hiru-garren eta laugarren postuak erabakitzeke partidua iragarri-ta egon arren, Potzu Ta Zapaburu taldekoak ez ziren agertu. Beraz, Nifis taldeak hiru-



garren postua eskuratu zuen eta Potzu ta Zapaburuak-ek laugarrena. Bestalde, talde errebelazioaren saria Zutaz Pentsatzenek eskuratu zuen; Kiroltasun handienaren saria, berriz, Azkenak taldeak. Goleatzaile nagusia Eva Alzas izan zen eta jokalaria nabarmenena Rachel Olabarria.

Karatea uztailean

Giartzu gimnasioak, dhaineko karate klaseak antolatu ditu uztaileko. Astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira arratsaldeko 18:00etatik, 19:00etara. Parte hartu nahi dutenek, Udala Kirol Zerbitzuan edo Giartzu gimnasioan eman beharko dute izena.

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Erreformatzeko dagoen etxea salgai Barrenkalean. 943 76 29 10.

Barrenkalean apartamentua. 943 76 56 41.

Etxea salgai Osintxun. Erdi-amueblatua. 943 76 49 74.

Pisua salgai San Antonion. 943 76 56 20.

Mekolalde. 943 76 05 79.

Antzuola. Amueblatua. 943 76 62 52.

Etxea salgai Aranerrekalean. 943 76 09 24.

Errentan emateko

Pisua alokairuan Alcoceber-en, udan. 943 76 12 14.

Pisua alokairuan Laredon, udan. 943 76 13 86 (gauez).

Apartamentua Laredon, hondartzatik gertu. 943 76 52 80.

Estudioa Benidorm-en. 943 76 23 43.

Apartamentua Beni-

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zator Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/
MOTOAK**

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

dorm-en. Hondartzatik gertu. 943 74 20 31.

Errentan hartzeko

Familia batek etxea hartuko luke alokairuan. 943 76 26 82.

Pisua alokatu nahi dut. 943 76 30 57.

Pisua edo logela alokatu nuke uztailetik aurrera. 943 74 44 44 (lanorduetan).

Pisua hartuko nuke. 943 76 32 57 (David)

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea Torrekuan. 2 plaza. 943 76 28 24.

Garajea salgai Masterrrekan. 943 76 27 71.

Burdiñate. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Masterreka. 943 76 2457.

Salgai. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Bolu. 943 76 51 54.

Garajea bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

San Antonio. 943 76 15 37.

Kruz Gallastegi. 943 76 27 61.

Errentan emateko

Garajea alokairuan Bolun. 943 76 55 26.

Garajea alokairuan Po-

ligonoan. 943 76 32 58.

Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokatuko genuke. 943 76 50 00.

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Masterrrekan.

150m². 943 76 11 89.

A. Fleming. 943 76 00 84/35 63.

Lokal komertziala salgai Martokoa. 943 76 25 67.

Errentan emateko

Lokala alokairuan. 943 76 35 09.

4. LANA

Eskaintzak

Zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarak egin-go nituzke. 943 76 00 90.

Klinika laguntzailak gaisoak/helduak zain-tzen ditu. 943 76 64 47.

Neskak orduka lan egin-go luke. 939 47 25 94.

Uztailean zehar umeak zainduko nituzke. 943 76 07 50 (gauez).

Etxeko lanak egin edo zaharrak zainduko nituzke. 943 76 29 14 (Ana).

Neska eskaintzen da atariak edo etxeak garbitzeko. 919 52 98 04.

Neska eskaldun batek egunean ordu batzutan

ARDATZA
Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztiatoko moldurak

Apalak
Kajoiak

Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31 Tf. 943 76 20 02 BERGARA

 **WATCH SYSTEM**

Orain zeure eskura Etxeberrian.
Bidekuruzeta 16 BERGARA. Tf. 943 76 23 94 - 943 76 12 65.

ETXEBERRIA erlojotegia

lan egingo luke.
943 76 23 41 (Itxaso).

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. Espe-rientzia. 943 76 03 76 (Maite).

Eskaerak

Antzuolan pertsona bat behar da umeak zain- tzeiko irailetik aurrera. 943 76 65 00.

Neska euskalduna be- har da etxeko lanak egi- teko eta haurrak zaintze- ko. 943 76 04 56 (gauzez).

Umeak zaintzeko neska behar da. 943 76 57 81.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

Ingeles klaseak ematen ditut. 943 76 53 88 (Ro- sal).

Ingeles klaseak zuzaitzen (goizez). 943 76 17 18 (Jesus).

Mate klaseak. 943 76 03 72 (Nerea).

OHO eta BBBko 3. mai- lara arteko klaseak. 943 76 72 24 (Saioa).

Majisteritzako ikasleak

OHO klaseak ematen ditu. 943 76 47 30 (Aitziber).

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. (Nuria). 943 76 25 79.

Majisteritzako ikasleak OHOk klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mai- lara arteko klaseak udan. 943 76 32 93.

Mate, fisika eta LOGSE 2. mailara arteko klase- ak. Uztaila eta abuztua. 943 76 24 31.

Enpresaritzako klaseak ematen dira. 943 76 05 43 (Miren).

1. eta 2. Hezkuntzako klaseak. 943 76 42 08 (Nere).

Eskaerak

Ekonometriako klaseak hartuko nituzke. 943 76 26 82 (gauzez).

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Ford Sierra (SS-S) salgai. 943 76 18 28.

Peugeot 205 gorria. 943 76 21 70 (Ander).

Roller jet karabana. 5 plaza. 943 76 44 05.

Opel Kadett (SS-AC) salgai. 943 76 16 31.

Kawasaki GPX 600 R motorra. 943 76 09 17.

Remolkea salgai. 1,10 x 1 x 60 neurriak. Polies- terreko tapa, ia berria. 943 76 37 87.

Erosi

Remolkea (2 m.ko kaja- duna) erosiko nuke. 943 73 19 60.

7. ANIMALIAK

Oparitu

Txakurkumeak opari- tzen ditut (ama artzain txakurra). 943 76 12 93.

8. DENETARIK

Saldu

Orbea Sherpa bizikleta salgai. 943 76 52 76.

Pianoa. 943 76 51 54.

Depilatzeo makina

elektrikoa salgai. 943 76 46 90.

Master Sistem 2 bideo jokoak salgai. 12.000 pe- zeta. 943 76 06 96.

Razesa errepiderako bizikleta. 58 neurrikoa. 943 76 31 10.

MTB Hook mendiko bi- zikleta berria salgai. 28.000. 943 76 13 33.

Erosi

Disko eta singleak eros- ten ditut. 943 52 65 77.

Galdu/Aurkitu

Euskal selekzioaren txandala galdu nuen S. Arrietan. 943 76 14 94.

Urrezko pultsera galdu da. 943 76 14 94.

Urrezko belarrirako bat aurkitu dugu Simon Arrietan. 943 76 29 32.

9. HARREMANAK

Kontaktuar

33 urtetik beherako mu- til batekin harremanak izango nituzke. 91 PK, 20560 Oñati. Xabi. Era- bateko zuhurtasuna.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

MATRIZEROA

Deba Garaia. 9383/3

CNC FRESADOREA

Donostialdea. 9500/3

KARTOGRAFIA

ARDURADUNA

Donostialdea. 10057/3

REKTIKATZAILEA

Donostialdea. 10154/1

MONTATZAILE-

AJUSTATZAILEA

Donostia. 10157/1

ELEKTROMEKANIKA-

KO MANTENIMEN-

DU ARDURADUNA

Bilbo. 10166/4

KAMIOI GIDARIA

Bergara. 10277/0

ESKAIOLISTA

Bergara. 10576/0

KALIBRAKETAKO 2

PRESTATZAILE

Deba Garaia. 9385/2

FRESATZAILEA

Deba Garaia. 10245/3

TORNULARIA

Deba Garaia. 10082/3

2 GALDARAGILE-

SOLDADORE

Urola erdia. 9225/1

HARRERAGILEA

Gasteiz. 8002/3

TXINERAKO

ITZULTZAILEA

Gasteiz. 9795/3

2 GALDARAGILE

Gasteiz. 10362/1

GALDARAGINTZAKO

TRAZATZAILEA

Tolosa. 9922/2

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakizetan 9:00etatik 13:00etara. Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

ZERBITZARIA
behar da
kafetegirako
Tf. 943 76 18 08


LASA
Jatetxea
OZAETA JAUREGIA
Tf.: 76 10 55 Faxe: 943 76 20 29

Usoa Pub

☎ 943 76 38 57
Irala 1

iletxo
ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
A. Fleming 7 BERGARA
☎ 943 76 53 15

MUJIKA 
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

“Euskal Herria kantuz” izenburupean, herrialde bakoitzeko abesbatz onenetakoak bilduko dira

Uztailaren 18an, Santa Marina jaietan, Udal Pilotalekuan

**Hego Euskal Herriko lau herrialde-
etako abesbatz banak eta Iparraldeko
beste batek kontzertua eskainiko
dute uztailaren 18an gaueko
10:30etan, Santa Marinako jaien
baruan, Udal Pilotalekuan. Antolatzai-
leek, Aritzeta abesbatza eta
Santa Marinako jai batzordea, kalitatezko
abesbatzak ekarri nahi izan dituzte.
Beraz, herrialde bakoitzeko nabarmenenak izango ditugu.**

“Euskal Herria Kantuz” izenburupean, honako bost talde hauek hartuko dute parte jaialdian: Gasteizko Alaitz abesbatza, Etxarri Aranaz abesbatza, Gernikako Andra Mari, Baionako Xaramela eta Bergarako Aritzeta. Talde bakoitzak launa abesti eskainiko ditu “a capella”.

Bestalde, Xamatx dantza taldeak ikurrin dantza eskainiko du hasieran eta, amaitzeko, abesbatz guztiak Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin batera, 300 bat lagun guztira, “El príncipe Igor” (Borodin) eta Alfredo Gonzalez Chirlaquek eta Juan Martin Elexpuruk okasiorako konposatutako “Euskal Herria Kantuz” eskainiko dute. Kontzertuak ordu eta erdi inguru iraungo du. Sarre-
rak 500 pezetatan jarriko dira salgai.

Aritzetakoen asmoa da kontzertuan parte hartuko duten beste lau abesbatzen herrietan ere jaialdia antolatzea.

Aste honetatik aurrera, jaialdian parte hartuko duten bost abesbatzak aurkeztuko dizkizuegu. Aste honetan, Gasteizeko Alaitz eta Gernikako Andra Mari.



Alaitz abesbatza.



Antolatzai-leek astelehenean aurkeztu zuten abesbatzen jaialdia.

Alaitz abesbatza (Gasteiz)

1986. urtean sortua, Antton Leteren eskutik. Samaniego eskolaniako kideei jarraipena eman nahian sortutako taldea da. Euskal Herrian eta nazioarte mailan hainbat kontzertu eman ditu: Lisboan, Angulemen (Frantzia), Kanarietan, Belgikan... 1993an, Georgiako Orkestarekin batera, Eibargutxi kantata estreinatu zuen.

Abesbatz mistoa da eta gaur egun 16 eta 26 urte arteko 54 kidek osatzen dute taldea. 1995etik Basilio Astulezek egiten ditu zuzendari lanak. Gregorianoa eta musika garaikidea eskaintzen dute baina arreta berezia eskaintzen diote Euskal Herriko folkloreari.

Arestian, aurtengo ekainean, Autolgo (Errioxa) abesbatzen lehiaketan lehen saria eskuratu berri dute.

Andra Mari abesbatza (Gernika)

1978. urtean, Santa Zezilia eliz abesbatzari jarraipena emanez, Jose Antonio Aranaren eskutik sortutako taldea. 1989. urteaz geroztik Fernando Abaunzak egiten ditu zuzendari lanak. Besteak beste, Mallorca, Errioxa, Ara-

goi, Asturias, Burgos, Katalunia, Frantzia eta Alemanian hainbat emanaldi eskaini ditu azken urteotan.

1991. urtean Gabon kanta herrikoiez osatutako grabazioa kaleratu zuen eta beranduago, Iruñeko Pablo Sarasate Gazte Orkestarekin zuzenean grabatutako kontzertua kaleratu zuen. 1996. urtean Cantonigros-eko (Bartzelona) nazioarteko musika jaialdiko saria eskuratu eta Errenteriako Musikas-
ten parte hartzeko aukeratu izan zen.

Gernikako Andra Mari.



1997. urtean, Tolosa, Zumarraga, Autol (Errioxa) eta Avileseko (Asturias) lehiaketetan parte hartu zuen. Avilese-
lehenengo saria eta Autolen bigarrena eskuratu zituen. **B**

erakusketa

Larru langintza Antzuolan

Gaiari buruzko eskultura eta erakusketa prest

"Larru langintza edo zurrategiak Antzuolan" izenburuko erakusketa zabalduko da bihar, zapatua, eguerdiko 13:00etan Udaletxean.

Horretaz gain, gaiari buruzko eskultura, Azkoitiako Galdabeitia enpresak egindakoa, inauguratuko da ordu berean Zurrategi kalean. Eskultura brontzean egindakoa da eta berrehun kiloko pisua eta 1,75 metroko altuera ditu.

Antzuolak, garai batean, larru langintzak izan zuen garrantzia dela eta, gaiari buruzko erakusketa antolatu eta eskultura inauguratuko da jaien atarian. XVIII. mendean (1790. urtean), Barrundiko inguruan -orain Zurrategi auzoa-, Antzuolako lehen zurrategiak sortu zen, Bareño, hain zuzen ere. On-



doren, Olan (Lamariano y Cia), Telleria, Galartza Anaiak eta Arbulu sortu ziren mende honen hasierako urteetan. Horiez gain, beste bi ere martxan egon ziren: Zurraokua eta Arresenekoia.

Erakusketa uztailearen 12ra arte izango da zabalik eta gaiarekin lotutako materiala, tresneria edota argazkiak izango dira ikusgai. B

erreseinak



Anjel Lertxundi
Argizariaren egunak
Eleberria

Gai zaharrak, betiko eta betirako gaiak, era moderno eta gustagarri batean kontatu dizkigu Angel Lertxundik azken nobela honetan. Narrazio-forma berritzailea dakarkigu "Argizariaren egunak" honetan, eta kontakizun ugariaren (askotariko ikuspegi) arteko ispilu joko disdiratsua lortu du.

- Alberdania. 233 orr. 2.600 PTA



π L.T.
Denbora
Rock

Euskadi Gazteako lehiaketa irabazi izanak, estraineko diskoa grabatzeko aukera eman zien. Abesti zoragarriak betetako diskoa izan arren, "Hil da jainkoa" kantuagatik egin ziren ezagunak: teklatu sugerente eta gitarra eta ahots bortitzeko abesti ilun bezain ederra. Oraingoan, "Denbora" izeneko bigarren CDa kaleratu berri dute eta mungiarrek denbora alperrik galdu ez dutela esan daiteke: Zuberoako ikastolen alde, *Esan Ozenki* kaleratutako diskoan "Aldapeko" kantuaren bertsio beldurgarria egin zuten eta arestian ospatu den Ibilaldia 98ko kantua ere eurak konposatu dute. "Denbora"n, rock metalikoa, erritmo ertaineko abesti lasaiagoak eta baladak nahasten dituzte. Horretan, Smashing Pumpkins adoratuak moduan, maisuak dira.

- Esan Ozenki. 2.200 PTA

Udan irakurketa ohiturak bultzatzeko "Biblioporrak" programa jarri dute martxan Udal Liburutegian

Bergarako liburutegiak Biblioporrak programa jarri du martxan. Udako oporraldiak aprobetxatuz, sasoi honetarako eta adin bakoitzerako propio aukeratutako liburuak eskaintzen dira: sei urtera artekoentzat, sei urtetik 8 urtera artekoentzat, 8tik 10 urtera artekoentzat eta 10 urtetik gorakoentzat.

Euskarazko eta gaztelarazko liburuak dira, jenero guztietakoak eta haur eta gaztetxoentzat ez ezik, helduentzako ere badaude. Liburu guztiak berri samarrak dira, zaharrena, iaz argitaratutakoa.

Edozein modutan ere, kanpainaren helburu nagusia haur eta gazteak irakurketa bultzatzea eta udarako alternatiba bat eskaintzea da. Kanpaina Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Oñati eta Bergarako Udal Liburutegiek jarri dute martxan Jaurilaritzaren laguntzaz. Biblioporrak ez ezik, beste era batzuetako jarduerak ere antolatu dituzte urtean zehar haur literatura bultzatzeko, ipuin kontaketa esate baterako.

Bestalde, liburutegia goizez bakarrik izango da zabalik uztailearen abuztuaren goizeko 8etatik 13:00ak arte. B

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Langabetuaren egoera. 2. Araudiak. 3. Oinarrizko edari. Herri indoeuropar bateko kidea. Bokala. 4. Ke beltza. Kontsonante bikoitza. 5. Igarobide. Jainko egiptoarra. Martxa du. 6. Ausarta. Röntgen. 7. Uranioa. Ez eme. Sonda uhartediko uhartea. 8. Azala kendu. Bizkaieraz, ile. 9. Eistenioa.egin, begiratu. Arnas ezak hila. 10. Zein lekutara. Oihuak.

Goitik behera

1. Irudi geometriko. 2. Emea nebarekiko. Hegazti mota. 3. Nafarroako ibilgailuetan. Aljeriako dirua. Kontsonantea. 4. Gerra. Kolore bat. 5. Alkondara. Har ezak! 6. Berriro hartu. Bokala. 7. Gezurra ez dena. Oriaren erdian. Ilearnen hasieran. 8. Arrazoi. Damua agertu. 9. Kasik. Gauero egin ohi dugu. Bihia. 10. Sorginen gau-bilerak.

Soluzioa

(List of solutions for the crossword puzzle, including words like 'Gothik behera', 'Ezker eskuma', etc.)

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein da atsedenleku honen izena?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Beheko Taberna** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Jabier Gonzalez**entzat izan da: Belatz kantinan bi lagunendako afaria. Zorionak Jabierri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **1268 urtean**. Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**.

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Ze izen dauka Udal artxiboek martxan jarri berri duen datu-baseak?
A- Badago
B- Hordago
C- Badator
2. Zein taldek irabazi du IV. Nesken Futbito Txapelketa?
A- Gu Ta Gutarrak
B- Gu Geu
C- Potzu Ta Zapaburuak
3. Zein izenburupean bilduko dira hilaren 18an Euskal Herriko bost abesbatza?
A- Euskadiko Kantata
B- Euskal Herria Kantuz
C- Kanta dezagun denok

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

BEHEKO TABERNA

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

Jubilatuta egon arren, geldirik egoten ez dakien horietakoa da Pilare. Andereño izan zen Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastoletan eta, era berean, urte askotan Santa Marinako katekista izan genuen. Beti parrokian laguntzeko prest.

Pilare Mujika

San Martzial eguna ala erromeria?

Nik San Martzial eguna ospatzen dut.

Zer egiten duzu?

Letaniara joan eta ondoren txokolatea hartu.

Emakumeak dira nagusi. Zergatik?

Libretxoago ibiltzen garelako edo.

Baina gizakumeak ere etortzen dira.

Zer eskatzen zaio San Martzialari?

Eskatu baino eskerrak ematen zaizkio.

Domekan ez duzu San Martzialera

igotzen?

Ez, ordu berean Parrokian zeregina izaten dut.

Zaila da haurrei kristau

ikasbidea erakustea?

Lagata daukat bajna adin horretan ez dira errez tratatzekoak.

Zein adinekin ohartzen dira

erlijioaren garrantziaz?

Nire garaitik asko aldatu da hori; nik 6

urterekin egin nuen lehen jaunartzea.

Zintzoagoak, neskak ala mutilak?

Neskak, mutilak zakartxoagoak dira.

Gehien apreziatzen duzun balorea?

Baloreak guztiok dauzkagu. Guztiak baloratu behar dira.

Zer kenduko zenuke mundutik?

Elkar ikusi ezinak, inbidia...

Egunkarian irakurtzen duzun

lehen gauza?

Normalean atzeko orrialdetik hasten naiz.

Telebista ala irratia?

Telebista.

Gustoko programa bat?

"Goenkale" eta albistegiak.

Hobby bat?

Eskulanak adibidez, baina ez diet nahi beste denbora eskaintzen.

Irakurritako azken liburua?

Setien Gotzaiari buruzko bat.

Urtaro bat?

Udaberria.

Mania bat?

Ez dut uste maniarik daukadanik.

Zerekin egiten duzu barre?

Umeekin askotan.

Eta negar?

Arrazoiak badira munduan malko bareko negarra izateko...

Zerk lotsarazten zaitu?

Ez dut uste lotsatzen naizenik.

Beldurra, zeri?

Ez naiz beldurtia.

Zerbaitegatik emanko zenuke bizia?

Bada bere bizia emango lukeen inor?

Oporretan nora?

Bergaran geratuko naiz, jubilatuta eta gero oporretan naiz ni.

200 milioi irabazita,

zer egingo zenuke?

Dirua banatu. Modu askotan. B



ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

ARROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 943 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

POL-POL

Taberna

☎ 943 76 07 78



MARGA jantzidenda

IRITSI DA UDA!!!

%30 eta %50 eko deskontuak
Zatoz dena agortu aurretik!

MARGA JANTZIDENDA, SAN PEDRO 20 TF/F. 943 76 05 37

MAHER
Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta 29
943 76 22 90 - 943 76 26 75

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar 3. 943 76 16 14
Ibargari 8. 943 76 54 73



San Martzialgo erronomia, 1955

Aspaldiko ohiturari jarraituz, domekan, ehundaka bergarar bilduko dira San Martzialen. Dudarik gabe herriko jairik arrakastatsuenetakoa dugu eta urtetik urtera San Martzialgo zelaiak txikiago geratzen dira horrenbesteko jendetza jasotzeko. Azken asteotan kuadrilek domekarako prestaketa lanei ekin diote eta igandean eguraldiak laguntzea besterik ez da falta. Egitarauari dagokionez, ohizko gurdi igoera, meza, ondorengo dantza saioak edota arratsalde parteko herri-jolasak mantentzen dira.

Aste honetako erretratua 1955. urtekoa da eta orduan ere antzeko ekitaldiak izango ziren.

Bazkariarekin igo eta lagunarteko giroa primerakoa izaten zen. Horra hor argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Atzean: Hilari Mendizabal, Eulali Mendizabal, Juli Elgarresta, Vicenta Mendizabal, Pilar Isasmendi, Mari Karmen Mendizabal eta Eulali Elgarresta.

Aurrekaldean: Andres Azkargorta, Maria Victoria Zenitagoia, Alberto Zurro, Juanita Bertia, Ines Iribekanos, Maria Dolores Igarza eta Bitori Ugarte.

Argazkia: Alberto Zurro

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!



☎ 943 76 20 61



Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



GUIPUZCOANA

Paketeen garraio eta banaketa

BERGARA

Tf.: 943 76 36 42

Faxa: 943 76 54 25

San Juan auzoa z/g

20570 Bergara



PAKETERIA ZERBITZU
EGUNEROKOA

- Elkarte europarrera
- +
- Suizara,
- Noruegara,
- Poloniarra eta
- Hungariara



Independentzia eta sozialismoaren alde

- HITZALDI-SOLASALDIA
Dinamika berriaren azalpena:
Akordio Nazional bateruntz
- LUNTXA

**Uztailaren 10ean
20:00etan ARTATSE elkartean.**


ZATOZ!

**EZ DA ZER ENTZUN, ZER ESAN,
ZER JAN ETA ZER EDAN
FALTAKO!**

GRUPO **ARKAUZ**

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaketan
Betiko muntaketak



Mitarte 3 • ARETXABAETA • Tf. / Faxes: 943 77 04 55

altzariak

**ERAKUSKETA
BERRIZTUA!**

**ALTZARI-DISEINUA
ETA APAINKETA**



**ZAPATU
ARRATSALDEETAN
ZABALIK!**

Araba etorbidea 20 • ARETXABAETA • Tf. / Faxes: 943 79 23 51

Grupo Arkauzen denak dira abantailak.
Zatoz, eta daukaguna ikusi bezain laster, etxera eraman nahi izango duzu.
Aprobetxa itzazu Grupo Arkauzen abantailak.